


ERROLDA

**AUTODEFENTSA JURIDIKORAKO GIDA:
GASTEIZEN ERROLDATZEKO ESKAERA**



twitter: @erroldarikgabe
instagram: @erroldarikgabe



BATUTA

**ERROLDARIK
GABE,
IZATERIK
EZ!**

3



Txostena ematea ukatzen badizute idatziz egin behar dute, zergatia adieraziz. Ezezkoa horrela jasotzean, jar zaitez gurekin kontaktuan errekurtsua jartzen laguntzeko.

4



Txostena daukazunean, eraman Herritarrei Laguntzeko Bulego batera edo San Martineko bulegoetara, bertan errolda soziala eskatzeko, honako dokumentuekin batera:

- Instantzia Orokorraren orria (IV. Eranskina) zure datuekin beteta.
- III. Eranskina zure datuekin beteta.
- Nortasun agiria eta haren fotokopia.

5



Dokumentuak aurkeztu ondoren, udalaren erantzun hauetako bat jaso beharko zenuke:

- Eskatera onartzea eta etxebizitza horretan erroldatzea.
- Eskatera ukatzea eta hiru hilabeteko epean ezezkoaren arrazoiak azaltzea.
- Hiru hilabetean erantzunik jasotzen ez baduzu, zure errolda onartuko litzateke administrazio-isiltasunak zure alde eginez.

6



Erantzuna dena delakoa izanik, jar zaitez gurekin harremanetan: erroltarikgabe@gmail.com

- Onartzen badute, funtzionatu duela jakin dezagun.
- Atzera bota badute, erabaki horren aurkako errekurtsu administratibo bat aurkezteko. Guk lagunduko dizugu dokumentu hori idazten eta udalak emandako arrazoietara egokitzen.
- Erantzun ez badute, administrazio-isiltasuna zure alde baliatzeko eskatuz, zuzenean errolda lortzeko.

7



Errekurtsua bide administratibotik jartzekotan, alkatearen aurrean jarriko genuke. Errekurtsu hori berriz ere ukatzen bada, errekurtsua jarriko dugu Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren bidez. Horretarako, ofiziozko abokatu bat eskatzen lagunduko zaitugu, horretarako irizpideak betetzen badituzu; bestela, abokatu bat lortzeko kudeaketan lagunduko zaitugu.

AUTODEFENTSA JURIDIKORAKO GIDA: GASTEIZEN ERROLDATZEKO ESKAERA

Errolda eskaera Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan egin daiteke, eta baita San Martineko udal bulegoetan ere. Printzipioz, soilik bi baldintza bete behar dira eskaera egin ahal izateko: nortasuna frogatzea eta udalerrian bizitzea.

Hala ere, udalak dokumentu jakin batzuk eskatzen ditu bi baldintza horiek betetzen direla frogatzeko:

- Nortasuna frogatzeko: indarrean dagoen identifikazio dokumentua (NANa, bizileku-txartela, osasun-txartela, pasaporte edo familia-liburua).
- Bizilekua frogatzeko:
 - Etxebizitzaren jabetza-eskubidea izatekotan: jabetza-titulua.
 - Alokairu kasuetan: indarrean dagoen alokairu-kontratua, eta urtebetetik gorako antzinatasuna badu, alokairuaren azken ordainagiria.
 - Berralokairu kasuetan: alokairu-kontratu originala, berralokatzeko jabearen baimena (kontratu originalean ez balego), berralokairu-kontratua, eta urtebetetik gorako antzinatasuna badu, alokairuaren azken ordainagiria.

Hala ere, Gasteizen bizi diren pertsona askok ezin dute dokumentazio hori aurkeztu, baina horrek ez luke erroldarako eskubidea oztopatu beharko.

Gida honetan errolda eskatzeko bi prozedura bereiziko ditugu, bakoitzaren baldintzen arabera:

- Jarraitu **A Prozedurako** pausoak erregulariki etxebizitza batean bizi bazara —baina ez badaukazu ez jabetza-titulurik ez alokairu-kontraturik—, okupatzen ari bazara edo bizigarritasun-zedularik gabeko infraetxe batean bizi bazara.
- Jarraitu **B Prozedurako** pausoak kalean bizi bazara edo etxebizitza eskuratzeko bazterkeria-egoeran bazaude, hau da, etxebizitza finkorik ez baduzu.

Prozedura horietako bat hasiko baduzu, jar zaitez gurekin kontaktuan: erroltarikgabe@gmail.com

A PROZEDURA: ETXEBIZITZA FINKOA BAI, BAINA TITULU LEGALIK GABEKO PERTSONENTZAT

Udal errolda eskatu ahal izateko, jarraitu hurrengo pausoak:

1 Bildu bizi zaren etxebizitzaren helbidea duten dokumentuak. Edozein dokumentu izan daiteke: lan-kontratuak, ikasketen matrikulak; ikastaro, denda edota elkarteetan izen-emateak; hornidura-fakturak, paketeak bidali edo jaso izanaren agiriak... Garrantzitsuena da zure datuak helbide horrekin lotuta egotea, nolabait.

2 **Bete I. Eranskina (Kontraturik edo beste eskubiderik gabeko erroldatze eskaera)**, gida honen amaieran dagoena, adieraziz zure datuak, noiztik daramazun udalerrian bizitzen, eta zein dokumentu aurkeztuko dituzun froga gisa, eta **bete IV. Eranskina (Instantzia Orokorra)** zure datuekin.

3 **Zoaz Herritarrei Laguntzeko Bulegoetako batera**, San Martineko bulegoetan edo edozein Gizarte Etxetan, eta aurkeztu honakoak bertan:

- Zure datuekin betetako Instantzia Orokorra (IV. Eranskina).
- Zure datuekin betetako I. Eranskina.
- Froga gisa aurkeztutako dokumentazioa.
- Nortasun Agiri Nazionala eta haren fotokopia.

Aurkezten duzunean garrantzitsua da kopia edo frogagiri bat eman diezazutela, froga gisa.

4 **Dokumentuak aurkeztu ondoren, udalaren erantzun hauetako bat jaso beharko zenuke:**

- Eskaera onartzea eta etxebizitza horretan erroldatzea.
- Eskaera ukatzea eta hiru hilabeteko epean ezezkoaren arrazoiak azaltzea.
- Hiru hilabetean erantzunik jasotzen ez baduzu, zure errolda onartuko litzateke administrazio-isiltasunak zure alde eginez.

A PROZEDURA: ETXEBIZITZA FINKOA BAI, BAINA TITULU LEGALIK GABEKO PERTSONENTZAT

5



Erantzuna dena delakoa izanik, jar zaitez gurekin harremanetan: erroltarikgabe@gmail.com

- Onartzen badute, funtzionatu duela jakin dezagun.
- Atzera bota badute, erabaki horren aurkako errekurtsio administratibo bat aurkezteko. Guk lagunduko dizugu dokumentu hori idazten eta udalak emandako arrazoietara egokitzen.
- Erantzun ez badute, administrazio-isiltasuna zure alde baliatzeko eskatuz, zuzenean errolda lortzeko.

6



Errekurtsioa bide administratibotik jartzekotan, alkatearen aurrean jarriko genuke. Errekurtsio hori berriz ere ukatzen bada, errekurtsioa jarriko dugu Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren bidez. Horretarako, ofiziozko abokatu bat eskatzen lagunduko zaitugu, horretarako irizpideak betetzen badituzu; bestela, abokatu bat lortzeko kudeaketan lagunduko zaitugu.

B PROZEDURA: ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BAZTERKERIA-EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAT

Udal errolda eskatu ahal izateko, jarraitu hurrengo pausoak:

1



Lehenengo pausoa Gizarte Zerbitzuek artatu zaitzatela da, gutxienez hiru hilabete lehenago. Hala izan ez bada, zure Gizarte Etxean edo Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuan (SMUS) eskatu behar duzu.

2



Gutxienez 3 hilabete badaramatzazu Gizarte Zerbitzuetan artatua izaten, eskatu zure gizarte langileari edo zerbitzuari prozedura hasteko eta beharrezko txostena igortzeko.

Horretarako, zure datuekin bete beharko duzu **II Eranskina: Gizarte Zerbitzuei txostena eskatzea**, gida honen amaieran dagoena. Hori aurkeztean, eraman bi kopia, eta gorde zigilatutako kopietako bat aurkeztu duzula frogatu ahal izateko.